

IGELDOKO ORRI INFORMATIBOA



**Dena prest,
Gabonetarako**

Kaixo herrikide!!!

Konturatzera, urtea bukatzea da eta Gabonak hementxe ditugu. Hori horrela, Gabonetan izango diren ekintzen inguruko informazioa duzue atzeko orrian.

Horrez gain, herriko talde desberdinen azken berriak ere bildu

ditugu ale honetan. Eta azpimarratzeko kontu bat ere badugu. Desanexioa lortzeko bide juridikoa bukatuta, batzarra egin da, eta herritarrek bide berri bat jorratzen hastea erabaki dute: Toki Entitate Txikia. Erreportajea egin dugu.



42 bikote lehian, Neguko Pala Txapelketan

Iazkoa baino arrakastatsuagoa izaten ari da aurtengo Neguko Pala Txapelketa. Denera, 42 bikote dabilta lehian: lehenengo mailan 6 bikote, bigarren mailan 26 eta nesketan 10. Azaroaren 22an hasi zen txapelketa eta apirilaren 3an bukatuko da. Bitarte, horretan, ostiralero jokatu dira partiduak (18:30etatik aurrera). Azaroa eta abenduan, larunbat goizetan ere bai (09:00etatik aurrera).

Giro bikaina, pintxo-pote eta guzti

Herri Kontseiluak eta Pelota Elkarteak elkarlanean antolatutako txapelketa da. Helburua da, pelota eta kirola bultzatzea gain, herriari bizia ematea negu partean. Antolatzailerak azaldu dute, giro bikaina sortzen ari dela frontoian, partiduak ikustearekin batera, pintxo eta tragoak hartzeko aukera ere bai baitago! Herritarrei animatzeko deia luzatzen diete.

Jaiak prestatzeko, hasi dira biltzen

Lehenengo urteko jaien balorazioa egitean lehenago biltzen eta antolatzen hasteko beharra ikusi zen. Hori dela eta, Jai Batzordea hasi da herritarrekin biltzen. Lehenengo bilera abenduaren 19an egin berri dute. Hemendik aurrera, izango dira bilera gehiago. Azken urteetako dinamikari jarraituz, ahalik eta jende gehienaren artean antolatu nahi dituzte jaiak. Hori horrela, deia luzatu dute: ekintza zehatzen bat antolatzeko gogoia izanez gero edo orokorrean jaietako prestakuntzan murgildu nahi izanez gero, jarri harremanetan beraiekin hona idatziz: ttonttorro@gmail.com.

EH Bildu bozkatuena, Igeldon

Espainiako Kongresurako eta Senaturako hauteskundeetan (azaroak 10) 569 igeldotarrek (%68,06) eman zuten botoa eta EH Bilduk lortu zituen boto gehien: 253. Hurrengo alderdi bozkatuena EAJ-PNV izan zen 133 botorekin. Atzetik geratu ziren PP 55 botorekin, Unidas Podemos 50 botorekin, PSOE 49 botorekin, Ciudadanos 7 botorekin, Vox 7 botorekin eta PACMA 4 botorekin. Boto txuriak 8 izan ziren eta baliogabeak 3.

Kostak ordaintzearen inguruan, Udalarekin bildu da Itsas Aurre

Azken helegitearen ondorioz jasotako "kostak" ordaintzeko zailtasuna izanik, Itsas Aurre elkarteak urrian egin zuen batzarrean Donostiako Udalarekin hitz egitea erabaki zen. Abenduaren

hasieran bildu ziren Itsas Aurreko kideak Donostiako Udal Gobernuko Iñaki Gurrutxagarekin eta "kosten" inguruan elkar-ulertze batera iristeko proposamena adierazi zien. Udalaren aldetik,

aztertzeotan geratu dira eta erantzuna telefonoz emango dietela adierazi dute.

Beraz, oraingoz Udalaren erantzunaren zain daude Itsas Aurreko kideak.



Lizardin, eta kaxkoko belardietan, zakur kakak seinalizatu dituzte banderatzxoen bidez.

Bost proposamen Eskola Zaharrerako

Duela urte batzuk eskola zaharreko teilatua konpondu zen. Orain, udal-letxeari erabilera zehaztuko duen proiektua aurkeztu behar zaio. Proiektua 2021 urteko aurrekontuetarako aurkeztu beharko da (zerbait egin dezaten) eta datorren udaberri-rako prest izateko eskatu dute.

Herri Kontseiluak hasieratik, lehenetsuneko gai gisa hartu du, herritarren oinarriko beharrak asetu ditzakeen eraikina baita. Horrela, urria bukaeran bilera ireki bat deitu zen eta bertan jada talde txo bat osatu zen proiektua idatzi eta aurrera eramateko.

Bildutako herritarren artean proposamen ezberdinak egon dira: jubilatuentzat elkartzeko gunea eta eguneko zentroa, gazteek kudeatutako gunea, etxebizitza komunitarioak jartzeko proposamena, Santiago bidekoentzako albergea... proposamenak aztertu eta zein erabilera emango zaion zehaztuko da hurrengo hilabeteetan. Noski prozesu hau herritarrekin batera egiteko baliabideak jarriko ditu taldeak.

“Eguberritan, zapatak garbi!”

Urriko batzarrean adierazi zen bezala, Herri Kontseiluak kanpaina bat jarri du martxan zakur kaken arazoari konponbidea eman nahian. Kanpaina honetan, gogoraziko da zakur kakak bildu egin behar direla eta betebeharrak hori zakur jabeena dela. Gauden urte garaia kontuan hartuz, “Eguberritan, zapatak garbi!” mezua izango du oinarri kanpainak.

Lizardin, zakur kaken mapa

Zakur kakak pilatzen diren guneetako bat da Lizardi, eta bertan, eta kaxkoko belardietan, lehenengo ekimena burutu

da. Bandera txikiz josi dira belardiak, bertan dauden kakak seinalizatu.

Informazioa, kartelak eta poltsak

Datozen egunetan, kaxkoko etxeetan informazioa banatuko da eta horrez gain, kartel informatiboak jarriko dira paneletan. Belardietan, berriz, seinaleak jarriko dira kaka bildu egin behar dela gogoraziz eta horretarako poltsak ere eskura jarriko dira. «Denon onurarako eta konbinentzia on baterako, izan arduratsua!», adierazi dute.

Etxebizitza taldea sortu da

Etxebizitzari dagokionez, arazo larria dugula iritzita, herri kontseiluaren inizatibaz herritar talde bat antolatzen hasi da. Azken urteetan, gero eta igeldotar gehiago kanpora bizitzera joan dira. Egoera honi konponbidea jarri eta zerbait egin beharra dagoela iruditzen zaie antolatzen hasi diren herritarrei.

Taldea lehenengo aldiz, hurrengo asteetan bilduko da eta gaia osotasunean lantzeko

asmoa dute. Hau da, etxebizitzaren gaiak ertz asko ditu, beraz ez dute modu partzialean landu nahi, arazo estruktural eta orokor gisa baizik. Aipatu dutenez, etxe hutsak, babes ofizialeko etxeak, etxebizitza komunitario/kooperatiboak... lanketan murgilduko dira. Taldean sartu edo gaiaren inguruan laguntzeko prest egonez gero, idatzi edo deitu hona: herrikontseilua@igeldo.eus edo 943313030.

Hastera doa Musa

Ohi bezala, urtarrilarekin batera, Musa hasiko da Igeldon. Urtarrilaren 17an, Euskal Herriko Txapelketako kanporaketa jokatu da. Urtarrilaren 24an, berriz, Igeldoko musa hasiko da eta ordutik aurrera, ostiralero izango dira mus partidak. Lapak ere ez du hutsik egingo aurtengoan. Apirilean jokatu da, hiru ostiraletan zehar: 3, 17 eta 24an.

Alkatearekin eta EH Bildurekin, bilera bana

Herri Kontseiluak bilerak egin ditu Donostiako udal ordezkariarekin, abenduan. Alde batetik, Alkatearekin eta Auzoetako zinegotziarekin bildu zen; eta bestetik, EH Bilduko zinegotziarekin. Bi bileretan, Herri Kontseilu berriaren aurkezpena egiteaz gain, Igeldoren egoeraren berri eman zieten, oinarrizko arazoa utzikeria dela adieraziz.

Toki Entitate Txikiaren gaia lantzen

Iazko abenduan, orduko Herri Kontseiluarekin bildu zen Eneko Goia alkatea eta Toki Entitate Txikiaren inguruan (Ente Local Menor) Igeldorako proposamen bat lantzeko konpromisoa hartu zuen (euren arabera, Igeldorako konponbide onena izanik). Azken bilera honetan, Goiak adierazi zuen gaia lantzen ari direla, juridi-

koki aztertzen ari direla legeak ze aukera ematen dituen, eta txosten bat prestatzen ari direla.

Eskola Zaharra, espaloia...

Eskola Zaharrerako, herriak aurkezten duen proiektua kontutan izango dutela azaldu zuen Alkateak, baina aurreratu zuen diru asko beharko dela eta ikusi egin beharko dela. Gutxienez, egitura berri (eraikina erori ez dadin) eta beheko pisua egokitzeko eskatu zitzaion, Jubilatuta elkar-tearen beharra ere adieraziz. Aztertzekotan geratu ziren.

Kaxkoa eta kanpina lotuko lituzkeen espaloiaz ere aritu ziren. 2007an Udalak egindako proiektua berriz aztertzekotan geratu ziren. Zatika egitea ere proposatu zen. Segurtasunaren inguruan egindako azken eskaerak ere lan-

tzekotan geratu ziren: Benta Alegreko kruzea, Borda Berri eta Kamio arteko barandilla...

Mendizorrotzeko kudeaketa plana martxan jartzea eta autobus zerbitzua Igeldora egokitzea ere eskatu zien berriz, Herri Kontseiluak.

Espaloiarene eskaera, batzordera

EH Bilduko zinegotziarekin egindako bileran ere, gai berak izan ziren hizpide eta adierazi zuten, espaloiarene gaiarekin lotuta, batzordean sartuko zutela eskaera, Gobernu taldeak erantzun dezan eta gaiari hel diezaion.

Gainerako alderdiekin ere bilerak

Gainerako oposizio alderdiekin ere biltzeko asmoa du Herri Kontseiluak.

Espaloia eta Benta Alegreko kruzeari konponbidea emateko eskatu du Herri Kontseiluak, berriz

Donostiako udal erregistroan bi idatzi berri aurkeztu ditu Herri Kontseiluak: bata, kaxkoa eta kanpina lotuko dituen espaloia egiteko eskaera; eta bestea, segurtasunaren inguruko beste lau eskaera. Tartean, Benta Alegreko kruzeari konponbidea ematea. Beste hiru eskaerak honakoak dira: Borda Berri eta Kamio baserrien arteko espaloian barandilla jartzea; Gudamendiko kruzean zebrabidea jartzea; eta (kaxkoan) beheko parkinetik errepidera sartzeko, ispilua jartzea.

Hainbat herritar sartu dira lan batzordeetan


Herri Kontseiluak deialdi bat luzatu zuen azken Herri Batzarrean. Herritarrei laguntza eskatu zien proiektu eta ekintzak aurrera atera ahal izateko eta lan batzordeetan edo proiektu jakinetan sartzeko gonbitea egin zien. Deialdi horri erantzunez, dozena bat herritarrek izena eman dute eta batzorde eta lan talde desberdinetan sartu dira: etxebizitza, eskola zaharra, Hirigintza, herri bideak... Herri Kontseiluarentzat oso positiboa izan da herritarren erantzuna eta eskerrak eman nahi dizkie.

Nahi duenak ateak irekita

Gogorazi dute nahi duenak aukera duela proiektu edo batzordeetan sartzeko. Hiru batzordeak honakoak dira: Hirigintza, Batzorde soziokulturala eta Batzorde sozioekonomikoa. Interesa izanez gero, esan izen-abizenak, telefonoa eta intereseko batzorde edo proiektua: herrikontseilua@igeldo.eus/ 943313030/ Herri Kontseiluko kideren bati esan.



Sekulako malkarra, eta barandillarik ez.



Astebete gutxienez, hondakina jaso gabe.



Zerbrabiderik ez, behin baino gehiagotan eskatu arren.



Etengabeko hondakin pilaketa Iturrietan, eta neuririk ez...

Utzikeria, agerian

Donostiako Udalak Igeldon daukan utzikeria begi bistakoa da: errepide eta herri bideetan zuloak, argirik edo urik gabeko guneak, hondakinak jaso gabe, bide bazterrak garbitu gabe, segurtasunik gabeko guneak...

Zerbait egitea lortzen bada, behin baino gehiagotan abixatu delako izaten da eta Herri Kontseilua nazkatuta

dago egoerarekin. Hori horrela, utzikeriaren inguruko txosten bat prestatzea erabaki du. Ondoren, txosten hori Udal Erregistroan aurkeztuko du.

Herritarren laguntza

Txostena prestatzeko, informazioa biltzen ari da orain eta Igeldoko txoko guztietara iristen ez denez, herritarrei

laguntza eskatzeko aprobetxatu nahi du Orri Informatibo hau. Azaldu duteenez, nahikoa da argazki bat atera eta hitz gubxitan egoeraren berri ematea. Ondoren, helarazi. Aukera desberdinak daude: herrikontseilua@igeldo.eus/ Itsas Aurreko buzoian utzi/ Herri Kontseiluko kideren bati edo herriko dinamizatzaileari eman.



Zer daukagu, frontoia ala igerilekua?



Kruzeari konponbiderik ez, behin baino gehiagotan eskatu arren.

Aurrerabidea: Toki Entitate Txikia

Bukatu da desanexioa lortzeko bide juridikoa. Momentu honetan, tarteko bideak jorratu beharra ikusten da Igeldoren garapenean, aurrerapausoak emateko.

Egin sei urte atzera. Ezaguna al zai-zue honako data hau? 2013ko abenduaren 17a. Momentu honetan agian ez duzue gogoratuko, baina egun historikoa izan zen hura Igeldorentzat. Harro egoteko eguna. Bai, Igeldo udalerriz izendatu zuten eguna. Gipuzkoako 89garrena. Urtetako borrokaren ostean lortu genuena. Ez dugu ahaztu behar!

Gutxi iraun zuen Igeldok udalerriz independente gisa. Segituan etorri ziren trabak Donostiako Udaletik eta traba horien ondoren etorri ziren suspentsio kautelarra, eta urte honen hasieran, azken epaia. Definitiboa. Bukatu da desanexioa lortzeko bide juridikoa. Momentuz behintzat, gaur egungo legediarekin ezinezkoa dugu desanexioaren bidean jarraitzea. Legeak aldatu ezean, ezin dugu bide horretatik jarraitu eta gaur gaurkoz, borondate politikorik ez dago...

Eta orain zer?

Puntu honetara iritsita, Igeldok orain ze bide landu behar duen aztertzeko, Batzorde berezi bat sortu da Herri Kontseiluko hainbat kideekin eta gaian interesa duten herritar batzuekin (urriko Herri Batzarrean halaxe erabaki zen).

Beraiek argi dute: «Bi aukera dauzkagu. Horrela jarraitu, Donostiako auzo abandonatu moduan, ezer ez daukagula. Edo tarteko bidea jorratu; hau da, Toki Entitate Txikia edo Auzo Udala delakoa». Azken hori, egungo egoeran, aurrerapauso nabarmena litzatekeela nabarmendu dute. Igeldotarren nahia eta erabakia



Sei urte bete berri dira argazki hau atera zela. Igeldo udalerriz izendatu zuten eguna.

Ez da kontu berria

Toki Entitate Txikiarena ez da kontu berria. Odon Elorza alkate zen garaian, proposamen bat lantzea ere lortu zen elkarlanean (1998an hasi zen prozesua). Batzorde misto bat sortu zen horretarako, Udal ordezkariak eta Herri Kontseiluko kideak osatua. Lau urte inguruko prozesuaren ondoren, azken momentuan, kajoian sartu zuen Udalak azalpenik eman gabe.

Oraingo asmoa litzateke, proposamen hartatik abiatu, batzorde mixto berri bat osatu eta prozesua berriz martxan jartzea, Igeldo Auzo Udal txukun bat bilakatuz.

ahaztu gabe, tresna baliagarria dela gaineratu dute, Igeldorentzako onurak lortzea helburu izanik. «Gainera, ez du baztertzen desanexioaren aukera (noizbait legeak aldatuko balira). Alderantziz, erraztu egiten du», diote.

Zer da Toki Entitate Txikia edo Auzo Udala?

Auzo Udal batek pertsonalitate juridikoa dauka, legeak babestua, eta Foru Aldundiak izendatzen du. Auzo alkateak eta juntakideak osatzen dute.

Igeldo Toki Entitate Txikia izango balitz, aurrekontu bat eta eskumenak izango genituzkeela azaldu dute Batzordeko kideek eta horiek guk gestionatuko genituzkeela. «Adibidez, honako konpetentziak lortzea izango



Batzarraren adostasuna

Pausorik eman aurretik, Herri Kontseiluak eta gaia lantzeko sortu den Batzorde bereziak, herritarren iritzia jaso nahi zuten. Egungo egoeran, Toki Entitate Txikiaren bidea jorratzea begi onez ikusten den jakin nahi zuten eta horretarako, batzarra deitu zuten abenduaren 12an. Bertan, 35 herritar elkartu ziren eta adostasunez, bide hau lantzen hastea erabaki zuten.

genuke: obra txikiak, mantenimendua, zerbitzuak, kultura, euskara, hezkuntza, kirola...». Mugez ere hitz egin dute: «Muga batzuk ere badaude legez, eta Hirigintza bere osotasunean ezingo litzateke Igeldoren eskumena izan, adibidez. Dena dela, Donostiako Udalarekin negoziaketa baten ondorioz zehaztuko liriteke aurrekontu eta konpetentzia horiek».

Horrez gain, entitate juridiko izatera edukita, diru laguntza potoloak lortzeko aukera izango lukeela Igeldok azpimarratu dute (Eusko Jaurlaritza, Foru Aldundia...). Eta baita Finantziarioa lortzeko aukera ere (maileguak,...).

Udalaren jarrera

Eneko Goia Donostiako alkateak eta egungo udal gobernuako kideek beti adierazi izan dute Igeldorako irtenbiderik onena Toki Entitate Txikiarena dela. Iazko abenduan, orduko Herri

Kontseiluarekin bildu zen Alkatea eta gai honekin lotuta, proposamen bat landu eta Herri Kontseiluari aurkezteko konpromisoa hartu zuen. Urtebete beranduago, abenduaren 3an bildu zen Herri Kontseilu berria Alkatearekin eta proposamena lantzen ari direla azaldu zien. Txosten juridiko bat eskatu dute eta hori prestatu zain daude. Baina argi eta garbi, prozesu

hau lantzeko borondatea baduela adierazi zien Herri Kontseiluko kideei. Odon Elorzaren garaiko proposamena oinarri hartu eta batzorde misto bat osatzeko prestutasuna ere azaldu zuen.

Zain egon gabe

Udalaren esku utziz gero, legegintzaldia joango dela ikusten dute Batzordeko kideek eta argi dute herritik presioa egin beharko dela. Hori horrela, zain egon gabe, bilera berri bat eskatzeko asmoa dute, batzorde misto hori lehenbailehen osatu eta prozesua martxan jartzeko.

Horrez gain, Toki Entitate Txikiari begira, ahalik eta aurrekontu handiena lortzeko eta igeldotarrori komeni zaizkigun eskumenak lortzeko, borroka egin beharko dugula nabarmendu dute: «Batzordean lan egiteaz gain, aparte ere, lan egin beharko da».

Batzordea, irekia

Toki Entitate Txikiaren gaia lantzeko, Batzorde berezi bat osatu da. Bertan, Herri Kontseiluko kide batzuk eta herritar batzuk daude. Batzordea irekia da eta nahi duenak aukera du bertan sartzeko. Laguntza guztia ongi-etorria izango dela adierazi dute. Interesa izanez gero, Herri Kontseiluko kideren bati esan edo herriko dinamizatzaileari.

Gipuzkoan, bi adibide

Ereñotzu eta Itziar: «Erabat positiboa»

Ereñotzu izan da Gipuzkoako lehenengo Auzo Udala. 2010 urtean sortu zen, Ereñotzu eta Hernaniko Udalaren arteko negoziaketan ondorioz (lau urteko prozesua). Hernaniren aldetik beti izan dela jarrera ona azaldu izan dute eta ez dutela arazorik izan. Ereñotzu, lurraldez, Hernaniren %65a da eta biztanlez, %3,5a.

Eskumenak eta aurrekontua

Eskumenei dagokienean, ez zituzten ahal zituzten konpetentzia guztiak hartu. Honakoak daukate beraien esku: obra txikiak, mantenimendua (landabide eta herri bideak, bertako eraikinak, kaleko argiteria, garbiketa...), zerbitzu batzuk, ondarea, kultura eta euskara, kirola... Aurrekontua, Hernaniko Udalarekin adostua dute nola banatu (formula eta koefiziente batzuk aplikatuz kalkulatu dute) eta urtero egokitzen dute. Aurtengo aurrekontua 420.000 euro ingurukoa izan da.

Langileak eta funtzionamendua

Ereñotzuko Auzo Udalak langile bakarra dauka: adminis-

traria. Hortaz aparte, idazkari bat dago Hernaniko Udalekoa dena eta gainerako lanak ere, normalean, Hernaniko plantilakoekin egiten dituzte: mantenimendua, kale garbiketa, jardineritza lanak, konponketak... Horien gastua, Hernaniko Udalari ordaintzen diote gero.

Oñaketa

Hirugarren legegintzaldian daude (2019-2023) eta Unai Erroitzenea da Auzo Alkatea. Berarekin batera lau juntakidek osatzen dute Auzo Udala. Horiez gain, bost kide gehiago daude Auzo Kontseiluan.

Balorazioa

Ereñotzukoak oso gustora daude Auzo Udala izanda. Urte hauetan gauza asko lortu dituztela diote eta ereñotzuarrak ere gustora daudela: «Garbitasun aldetik txukun dago, frontoi estalia egin da, konponketak azkarrago egiten dira orain, zerbitzuak jarri ditugu...». Beraien diruarekin, hiru lokal erosi dituzte: taberna, denda eta garaje bat. Hori horrela lortu dute zerbitzuak izatea bertan.

Itziar Auzo Udala 2014an sortu zen. Urte luzetako prozesua eta gorabeheratsua izan zen Itziarren, Debako Udalean kontrako jarrera izan baitzuten alderdi gehienek (mugak zehazterako orduan, batez ere). Berez, Igeldon bezala, beraien nahia udalerrin independentea izatea zen, baina legeak aukera hori itxi zien eta Auzo Udalaren bideari ekitea erabaki zuten. Itziar, lurraldez, Debaren %90 inguru da eta biztanlez, %20a.

Eskumenak eta aurrekontua

Eskumenei dagokienean, ahal ziren eskumen gehienak lortzen saiatu ziren. Hondakinen bilketa ere beraien gain doa. Aurrekontua, Debako Udalarekin adostua dute zenbat dagokion Itziarri (Ereñotzun bezala, formula eta koefiziente batzuk aplikatuz). Gaur egun, Debako aurrekontuaren %13a dagokio gutxi gorabehera; hau da, milioi bat euro pasatxo.

Langileak eta funtzionamendua

Auzo Udala onartzerakoan, hitzartu zuten langile bat izango zuela Itziarrek, baina hori ez da bete orain arte. Orain kontratatzeak ziren kudeatzaile bat "todoterenoa". Horrez gain, brigadako bat fijo eduki beharko lukete eta Debako brigadako beste bat laguntzera joan beharko luke, baina hori ere ez da bete guztiz orain

arte. Garbiketari begira, pertsona bat kontratatzeak asmoa dute. Lehenengo legegintzaldia oztopez betea izan dela diote, baina aurrera jarraitzea dela garrantzitsua.

Oñaketa

Bigarren legegintzaldian daude orain (2019-2023) eta Arantza Egaña da Auzo Alkatea. Berarekin batera lau juntakidek osatzen dute Auzo Udala. Horiek dira kargu ofizialak dituztenak, baina atzetik beste hainbeste herritar ere ari dira lanean.

Balorazioa

Itziarren ere, oso pozik daude Auzo Udalarekin. Sekulako aukerak ematen dizkietela diote: «Diru laguntza pila lortu ditugu eta inbertsioak egiterako garaian, askatasun osoa dugu, Itziartik bertatik jarriz lehentasunak. Autoritatea ere badaukazu entitate publikoekin lan egiteko. Beste indar bat daukazu». Besteak beste, eraikin bat erosi dute. Taberna jarri dute behean eta goian ikastaro pila bat ematen dituzte.

Laburbilduz, hiru onura nagusi aipatu dituzte Auzo Udala izanda: diru laguntzak lortzeko aukera, remanentea izatea (beraiek negoziatu zuten Debarekin) eta kredituak eskatzeko aukera.



ZEINTZUK OTE DIRA ARGAZKIETAN AZALTZEN DIRENAK?

Gabon garaian gaudela eta, aurtengoan ere, gabon eskeko argazki zaharrei begira jarri gara. Ea ezagutzen dituzuen argazkietan azaltzen diren herritarrak.



Atal honetan, herriko argazki zaharrak plazaratu nahi ditugu. Herriko historia eta istorioak kontatuz, zer hitz egina eta pentsatua emanaz. Gure asmoa herriarekin lotura duten mota ezberdinetako argazkiak jartzea da, eta bide batez, zure etxeko bazterrek astintzea ere eskatu nahi dizugu, interesgarriak izan daitezkeen argazki zaharrak dituzun begiratu eta gurekin konpartitzeko. Guztion artean lan polita egin baitezakegu. Animatu!

Argazkiak pasatzeko deitu 627 756 185 (Jabier), 645 735 762 (Larraitx) edo emailaz bidali igeldokoorria@gmail.com helbidera.



Junta aldaketa, abenduan

Abendu honetan bi urte betetzen ditu Mendizorrotz Guraso Elkarteko juntan egon den laukoteak. Bada atzetik gogoz datorren taldetxoa ere hauek ordezkatzeko eta abenduaren 20an egingo da aldaketa. Junta zaharrak eskerrak eman nahi dizkie bi urte hauetan ekimen desberdinak bideratzeko laguntza eskaini dieten guraso, irakasle eta igeldotar guztiei, «baita herriko txikienei ere, beti baitaude prest ekintza, jolas eta lan desberdinetan parte artzeko eskola eta herria alaituz. Mila esker!», adierazi dute.

Eskola sarrera-irteera orduetan goiko parkina ez erabiltzeko deia

Azken aldirian eskola ondoko aparkalekuan haur eta kotxeekin hainbat susto egon direla jakinda, oraingo juntak eta guraso talde batek kanpaina txiki bat martxan jartzea erabaki dute, ahal den heinean eta eskolako sarrera-irteera orduetan batez ere, goiko aparkalekua ez erabiltzeko eskatuz.

«Ez da gai berria eta ez da goiko aparkalekua-
ren erabileraren inguruan egingo den lehenengo ekintza, baina aurretik eginiko lana gogorarazteko kartelak prestatu ditugu eskola inguruan jartzeko», azaldu dute. Posta elektronikoko bidez ere lantzeko ideia dute. «Ea eskola sarrera segurua izatea lortzen dugun denon artean!!!».

Oraingo ordutegia mantenduko da

Guraso talde batek, urrian egindako ohiko bilaren ostean, ordutegi aldaketaren prozesua martxan jartzea erabaki zuen. Helburua zen goizean 09:30etan eskolara sartu beharrean, klaseak 09:00etan hastea. Lehenengo bozketa egin ondoren, prozesua bertan behera geratu da, izan ere, ordutegia mantentzearena izan da aukera babes-tuena.



«Kikirriki kukurruku, gosea daukagu!»

Urriaren 31n, Santu Guztien bezperan, eta bigarrenengo urtez jarraian, Gau Beltza ospatu zuten Igeldoko haur eta gurasoek. Ekimen honen helburua honakoa dela adierazi dute: «umeeek ospatu nahi duten eta arrotza zaigun Halloween festa gugaratzea, gure ohitura eta izaera emanda».

Gaineratu dute txikiak oso gustura ibili zirela gurasoek prestatutako tailerretan, baita gozoki eske ere, «Kikirriki kukurruku, Gosea daukagu» lelopean. Amaitzeko afaritxoa prestatu zuten heldu zein txiki-entzat. Oso ondo pasa zuten denek!



Azaroaren 25ean Tratu onen Eguna ospatu zuten eskolan.

Oporraldiaren aurretik, ekimen ugari

Eskolako zaharrenek tailer desberdinak izan dituzte azken hiruhilekoan. Horrez gain, Tratu onen Eguna eta Euskararen Eguna ospatu ditu eskolak.

Gabonetako oporraldia hasi berri dute eskolako ume, irakasle eta gainerako kideek, baina oporraldiaren aurretik, lan eta lan aritu dira eskolan, eta egindako ekimenen berri eman diote Orri Informatiboari.

Hasteko, Guraso Elkartearen junta aldaketa izan dute hizpide: «Lehenik eta behin eskertu nahi diegu Jexux, Itziar, Nagore eta Amaiori bi urte hauetan eskolaren alde egin duten lana. Gabonetako festan, talde berria zein izango den jakingo dugu».

Hiru tailer

Hiruhileko honetako astearte arratsaldeetan, 2. eta 3. zikloko ikasleek hiru tailerretan parte hartu dutela azaldu dute:

- Robotika: Code programa landu dute.
- E-Bug: mikrobioen mundua ezagutu dute.
- Sukaldaritzza eta artea: artean beste ikuspuntua garatu dute eta baita sukaldaritzaz gozatu ere.

Tratu onen Eguna eta Euskararen Eguna

Azaroaren 25ean "Tratu onen" eguna ospatu zuten eskolan. «Nola tratatuak izatea gustatzen zaigun eta nola ez ondo bereiztu behar dugu», adierazi dute.

Bestalde, abenduaren 3an Euskararen Eguna izan

zen eta hori ere ospatu zuten hainbat ekintza eginaz.

Blogean informazio gehiago

Gogorarazi dute bloga pil-pilean dagoela eta interesa daukanak hortxe topatuko duela informazio gehiago: igeldoeskola.blogspot.com

DUTXA BERRIAK

Eskolan azken urteetan hausnarketa prozesu sakon bat eman da berdintasunaren eta genero identitatearen ildotik, eta aurrerapausoak egin dira zentzu horretan (komunen edo jolastokiaren inguruan). Azken aldaketa garrantzitsua eskolako aldageletan gauzatu da, bertan zeuden dutxa irekiak banakako kabinatan banatu baitira. Horrela, ikasleek beren intimitatea mantentzea bermatzen da.

Gai honen inguruan Amelia Barquínek bere blogean argitalpen bat egin zuen, eta gure eskola aipatu zuen poztasun iturri eta eredu bezala. Blogean duzue linka.

Mila esker Amalia zure hitz ederrengatik!

Irekiera gero eta gertuago

Denda irekitzeko azken lanetan dabilta: obra bukatu, altzairuak montatu, hornitzaileak zehaztu, langileak aukeratzeko prozesua abiatu...

Kooperatibako irekiera gerturaten doa eta bitarte honetan, erabakiak hartu eta bitartekoak jartzea beharrezkoa dela adierazi dute Kooperatibako kideek. Horretan dabilta: eraikineko obren azken ikutuak, altzairuak montatu, hornitzaileak zehaztu, dendako ordenagailua programatu, eraikinaren dekorazioa landu, langileen hautaketa prozesua abiatu,...

Langileen hautaketa prozesua

Langileak aukeratzeko prozesuaren oinarriak urriaren 26ko batzarraren zehaztu ziren. Orain hautaketa prozesua martxan jartzea tokatzen zaio Kooperatibari. Ondoren, langileak aukeratzeko deialdia zabalduko dute.

Bazkidetza kanpaina, azken olatua

«110 bazkide inguruk osatzen dugu egun Kooperatiba, benetan adierazgarria eta indartsua», azal-



Eraikina egokitzeko obretan azken ikutuak falta dira. Argazkia, azaroaren 26koa da.

du dute. Hala ere, irekiera aurretik beste kanpaina bat abiaraziko dute, gero eta gehiago izan, Kooperatiba gero eta sendoagoa izango baita. Kopuru bat ere jarri dute erronka moduan: 125 baietz!

«Animatu eta egin dezagun guztion artean, herria!» luzatu dute deia.

Gabonetako boletuak

Iaz bezala, aurten ere bertako produktuez hornitutako saski ikusgarri bat zozketatuko du Kooperatibak. Eta zorte ona opa die denei: «Iaz boleto sariduna Sorondotarrek saldu zuten, ea aurten zein den sariduna. Zorte on guztioi!».



Urriaren 26an batzarra egin zuen Kooperatibak.



Lezkarri Abesbatzak kontzertua eskaini zuen azaroaren 16an, Zumaiaiko abesbatzarekin batera. Argazkian, Lezkarri eta Laida Otaduy zuzendaria.

Kontzertu ederra, hamasei urteko ibilbidea bukatzear direla...

Joan den azaroaren 16an, Igeldoko Lezkarri Abesbatzak kontzertua eman zuen herriko eskolako aretoan. Oraingoan, Zumaiaiko "Beheko Plaza" abesbatzakoak izan zituzten lagun. Joan zen urtean, Zumaian egiten duten Olagarru egunean abestu zuten Lezkarriko kideek. Orduko hartan, kalez kale ibili ziren elkarrekin kantatzen giro alaitzuan, eta ondoren, lagunarteko bazkari ederra egin zutela azaldu dute.

Herriko kontzertuari dagokionean, Lezkarriren emanaldia sei abestiz osatua izan zen, eta zumaiaikoek, zortzi eskaini zituzten. Bukatzeko, "Goizian argi has-tian" eta "Nerea izango zen", elkarrekin abestuz osatu zuten ekitaldia.

Lezkarrikoek emanaldiaren balorazioa egin dute: «Ikustera gerturatu ziren herritarrak pozik azaldu ziren kontzertua bukatu ondoren, nahiz eta gutxi izan hauek. Publikoaren gehiengoa, kantatzen genuenokin osatua



Hainbat herritar gerturatu zen kontzertua entzutera.

zegoen: Zumaiaitik 33 pertsona etorri ziren eta Lezkarrikoak 17 lagun ginen. Gero lagunarteko giroan, Lezkarrikoek Din-dinen antolatutako afari ederrarekin bukatu genuen».

Jendea behar, jarraitzeko

Urte hasierarekin, Lezkarriren ibilbidea bukatzear dela gogorarazi dute: «Datorren urteari begira, gure zuzendaria Laida Otaduy, bere ikasketak kanpoan jarraitzeko asmoz, ez da gurekin egongo. Urtarrilaren 18an, Lizartzan eman-

go dugun kontzertuaren ondoren amaituko da bere zuzendaritza Lezkarriren. Bestalde, gutxi geldituko dira datorren urtean abesbatzan jarraitzeko asmoarekin. Jende berria behar dugu, eta emakumeak batez ere, lau ahotsetan abesten jarraitu nahi badugu. Bestela, Lezkarri abesbatzaren ibilbidea bukatu egingo da».

Pozik dira behintzat egindako ibilbidearekin. Halaxe azaldu dute: «Hamasei urtetan jardun ondoren, honaino iritsi gara, eta esperientzia ona izan da».

Euskara bizi-



Euskararen Egunaren bueltan, ekin-tzak antolatu ziren Igeldon eta bertan, euskara bizi-bizirik egoteaz gain, hizkuntza bizia dela ere erakutsi zuten. Zinea, ipuin kontaketa, Euskaldun Peto lehiaketa, triki-pintxo-poteoa eta zunba egin ziren, Gerturatutakoek gogotik gozatu zuten!

Zazpi Euskaltzain Urgazle berri

Euskararekin jolastuz, Euskaldun Peto izeneko lehiaketa antolatu zen larunbatean eta parte hartze polita izateaz gain, oso giro ona sortu zen bildutakoen artean. Lau taldek hartu zuten parte, adin ezberdinetako herritarrekin, eta lau proba izan zituzten aurrez aurre. Talde urdina izan zen nagusi eta berak euskaratu zuen Euskaldun Peto titulua. Horrez gain, zazpi taldekideak Euskaltzain Urgazle berri izendatu ziren.

Beraiekin batera, triki-pintxo-poteoa egin zen ondoren kaxkoan zehar.

Zunba saioak ere, arrakasta

Hirugarren urtez, zunba saio irekia antolatu zen eta aurten ere arrakasta izan du. Eguraldia lagun, 40 bat herritarreko koadrila bildu zen plazan Maialen Lagok jarritako erritmoari segika. Ume zein heldu animatu ziren gorputza astintzera.

Argazkia, Euskaraldia iragarritz

Iaz bezala, datorren urtean ere Euskaraldia izango da (2020 urtea). Euskal Herriko herri eta txoko ezberdinetan egin bezala, kale ekintza egin zen Igeldon ere, Euskaraldirako deialdia eginez. Iaz parte hartu zuten hainbat Ahobizi eta Belarriprest plazan elkartu, eta argazkia atera zuten. Ekintzetako argazkiak ikusgai daude weborrian: igeldo.eus. Eta bideo-montajea ere bai.



bizi, Igeldon





Hemen dira Gabonak

Dagoeneko ate-joka ditugu Gabonak eta, aurtan ere, urtero bezala, zenbait ekintza prestatzen dabilta Kixmi eta hainbat guraso, elkarlanean. Abenduaren 14an Gabonetako ensaioa eta tailerra egin zituzten eta orain eskeen txanda izango da.

Jakinarazi dutenez, hasieratik bi taldetan banatuta egingo dira eskeak. Bai abenduaren 24ean, bai abenduaren 31n, 14:30etan abiatuko dira herriko plazatik. Aurtan ere iazko ibilbide berbera egingo da.

Abenduaren 24ean, eskea bukatu ondoren, 19:30ak aldera, Olentzero eta Mari Domingiren etorrera izango da plazan.

Deia ere luzatu dute: «Ez ahaztu eskeetara baserritarrez jantzita etortzeaz. Animatu eta parte hartu!».

ABENDUAK 24

Plazetxea denok batera.

1 TALDEA: TXIKIAK ETA TRAKTOREA

Orkoloaga pasealekua 11-77. (Erreroenea, Xerriene, Ipar izarra, Rantxonea, Etxe nagusi (2) + taberna, Mirariene, Iturritxo, Txalin, Josenea (2) kanpina, Ugarte-ene, Lurgorrita.)

Txalin bidea 3-26. (Biorreta, Belabieta, Belabieta azpi.)

Buztinzuri bidea 21- 10. (Miruatza, Lauspeltz eta Gorriene.)

Ondoren, traktorean denok elkartu.**2 TALDEA: HANDIAK ETA FURGONETA (TXARRA EGITEN BADU)****Balenziaga: 97.**

Arritxulo bidea: 6- 36. (Sindikala auzategia, Gambo, Matxakone, Loinazenea, Txabola, Iruin eta Iriarte.)

Marabieta bidea: 66-90. (Arretxe (2), Bengoetxe eta Ondasarte.)

Arritxulo bidea: 58. (Juandegi.)

Lapabide bidea 3- 22. (Arriola, Polunpari, Zankardegi (2), Habana eta Bekoetxeberria.)

Arritxulo bidea 80. (Gosti.)

Agiti bidea 2-3. (Txalin berri eta Arrano etxea.)

PILLOTEGIN DENOK ELKARTU ETA ELKARREKIN

Aita Orkolaga pasealekua 127-119. (Xatene, Bizkaiene, Otoendua (1) eta Mendizorrotz etxea.)

Aita Orkolaga pasealekua 10-16. (Gurutseta, Elizondo, Otondua (1), Mendizorrotz taberna, Kalonge, Din-din, Txapela eta plaza.)

Ondoren, Olentzeroren etorrera.

ABENDUAK 31**1 TALDEA: TXIKIAK ETA FURGONETA**

Marabieta bidea: 88-90- 54-24-34-40. (Itsasbide, Ganbaretxe, Arkaitza, Amone, Marabieta, Erosene eta Ekaitz.)

Tximistarri bidea: 34- 60-56-52. (Itxaso eta Zinkunegi)

Amezti kalea: 17-32. (Zarco, Bongoiti, Goizaldi, Nere Aberria.)

Tximistarri bidea: 2-9. (Oskarri)

Amezti kalea: 30.

2 TALDEA: HANDIAK ETA TRAKTOREA

Gudamendiko bidea: 3- 19.67-55.17.49. (Gure ametsa, Mendigain, Eguzkieder, Mendigain txiki, Amezti garai-koa, Xegama, Gure izarra (3) eta Txoxa.)

Lasarmendi bidea: 39. (Txokolatene.)

Kristobal Balenziaga pasealekua: 1-15. (Leku Eder eta Gure izardia.)

Tximistarri bidea: 9-20-14. (Zingita eta Pension Tximistarri.)

Balenziaga pasealekua: 42- 36. (Buena Vista.)

Amezti kalea 20-26. (Aiztoki eta Amezti zahar)

LEHENENGO DOANAK EDO**ELKARREKIN:**

Kristobal balenziaga pasealekua: 2-18. (Olatu-gain.)

Kristobal balenziaga pasealekua: 65- 54.75-68-72-80. (Amezti zahar, Txubillo, Bentaberri, Gure Kaiola, Kamio eta Borda Berri.)

***Lehenengo iristen denak plazako etxe berriak eta Sakristabene.**

Amaitzeko, plaza elkarrekin.

OHARRA

Iritzi-artikulua argitaratzeko ezinbestekoak dira: egilearen izen-abizenak, kontaktu-bide bat, testua euskarazkoa eta inolako asmo iraingarririk gabekoa izatea. Bestalde, Orri Informatiboak ez ditu bere gain hartzen atal honetan esaten direnak.

Inork iritzi-artikulu bat bidaltzeko interesik balu, hurrengo aleak martxoan eta maiatzean izango dira (igeldokoorria@gmail.com).



**IGELDOKO
HERRI
KONTSEILUA**

Itsas Aurre Kultur Etxea
Igeldoko plaza 4, 20008 Igeldo
Tfona. 943 313 030
Emaila: igeldokoorria@gmail.com



Laguntzailea **Donostiako Udala**